

Prentsa oharra

Nota de prensa



Berdintasuna, Hezkuntza
eta Gazteria
Igualdad, Educación
y Juventud



KONTADORESEK ATEAK IREKI DITU BERRIRO

- Ekipamendua azaroaren 24tik aurrera jarriko da martxan berriro.

Datorren astetik aurrera, Kontadores Gazte Zentroak atek irekiko ditu berriro, dagozkion osasun-neurri guztiekin. Gazteentzako zentroa kulturarako, arterako eta sorkuntzarako lekua da. Ohiko ordutegian egongo da irekita: asteartetik ostiralera 17: 30etik 20: 30era eta larunbatetan 17: 00etatik 21: 00etara.

Duñike Agirrezabalaga Gazteria zinegotziak adierazi duenez, "Kontadoresek osasun jarraibideak hartu ditu egonaldi segurua bermatzeko. Aldez aurretik gelen erabilera erreserbatu behar da; iristeko eta irteteko ordutegia bete behar da; pertsonen arteko segurtasun-distantziari eutsi behar zaio; maskarak erabili behar dira; eskuak garbitu behar dira eta zentroan jarri diren seinaleei kasu egin behar zaie. Osasun-neurriak direla eta, ezin izango zaie berriro heldu zentroan egiten ziren saiakuntza edo jarduera kolektibo ez-profesionalei".

Prensa oharra

Nota de prensa



Aretoak utziko dira antzerki-entseguak, prestakuntza-saioak eta bilerak egiteko, besteak beste. Horrela, edukiera mugatua duten gazteentzako bi areto irekiko dira.

Martx Up prestakuntza-saioak

Martx Up 18 eta 30 urte bitarteko gazteen jarduerak sustatzeko ekimena da. Proiektuak lantzeko 4 prestakuntza-saio ireki prestatu dira 2020ko azarotik 2021eko otsailera bitartean. Interesa duen edozein gazteri zuzenduta daude eta modu independentean programatu dira. Proiektuen tutoretza eta dinamizazioa MTA-Mondragón Team Academyrekin lankidetzan egingo da.

Hauek dira saioak:

- Azaroak 24, asteartea, 17: 00-20: 00: proiektutik ideiara. Saio honetan ideiak zehazten laguntzeko teknikak landuko dira.
- Abenduak 15, asteartea, 17: 00-20: 00: Design thinking. Metodologia hori prototipoak sortzean datza, erabiltzaileen esperientziatik abiatuta, betiere modu sortzailean.
- Urtarrilak 26, asteartea, 17: 00-20: 00: Canvas. Negozio-erduetan kontuan hartu beharreko alderdiak landuko dira eta proiektu bakoitzari aplikatuko zaizkio.
- Otsailak 23, asteartea, 17: 00-20: 00: Piching. Jendaurrean aurkezpen on bat egiteko jarraitu beharreko urratsak landuko dira.

Izen-emateak www.kontadores.eus webgunearen bidez egingo dira. 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, eta Donostian erroldatutakoek lehentasuna izango dute.

Edozein kontsulta egiteko, deitu 943483476 telefonora edo e-mailez Kontadores@donostia.eus helbidera.